

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak, Euskadik eta Iparraldek hitzarmen bat sinatu dute euskara sustatzeko

Dokumentuak hiru lurraldeetako baliabide eta politika publikoen koordinazioan aurrera egiten du

Astelehena, 2017.eko uztailak 3

Ana Ollok, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak, Bingen Zupiriak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, eta Mathieu Bergék, Iparraldeko Euskararen Bulego Publikoko lehendakariak, hiru lurraldeetarako berriazko lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean Nafarroako Jauregian.



[Hitzarmena](#), Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak Nafarroari martxotik eskaintzen dion lankidetzaren aurrera egiten du, eta Olló kontseilariak adierazi duenez, "elkarrekiko lankidetzari jarraituko dio, bikoiztasunak, beharrezkoak ez diren gastuak saihesteko eta eraginkortasunik handiena lortzeko".

Bestalde Bingen Zupiriak, Eusko Jaurlaritzako sailburuak, "hitzarmena sinatzen duten hiru administrazioak euskara hitz egiten den eremuan politika publikoak kudeatzen dituztela" adierazi du, lankidetzaren hau "naturala" dela esanez, "gure hizkuntzaren etorkizuna bermatzeko balioko duena. Lankidetzarako esparru oso zehatzak existitzen dira, eta hitzarmenak hauek ikuskatzea ahalbidetuko du".

Mathieu Bergék, Euskararen Bulego Publikoko lehendakariak, "hizkuntza-politika mailako lankidetzaren berri hori" goretsi du, azpimarratuz "euskararen transmisioa eta erabileraren sustapenerako ezinbestekoa" dela. Azkenik, Mathieu Bergék Europar finantzabideek eta bereziki POCTEFA ekintza programa berriek, hizkuntza politikaren erronkak kontuan hartzearen alde eraman beharreko elkar lana goraiatu du.

Lankidetzaren teknikoaren 5 esparru

Dokumentuak ez du ekarriko inolako betebeharrak ekonomikorik Nafarroako Gobernuarentzat, eta lankidetzaren teknikoaren bost esparru ezartzen ditu.

Helduendako euskararen hezkuntza eta irakaskuntzari

dagokionez, besteak beste hauek sustatuko dira: irakasleen eta ikasleen mugikortasuna eta trukatzeak, helduendako irakaskuntza-curriculuma garatzea eta irakasleen berariazko prestakuntza.

Hiru lurraldeek hizkuntza-gaitasun mailak ebaluatzen probak eta sistemak ere prestatuko dituzte. Horrez gain, hirurek emandako tituluak elkarri aintzatetsiko dizkiote.

Bestalde, eskola-esparrutik kanpo, neska-mutilendako aisialdi-jarduerak eta trukeak sustatuko dira **euskararen erabilera bultzatzeko**. Halaber, hiru alderdiek ingurune digitalean dauden informazioak trukatu dituzte.

Hitzarmenak **euskararen eta gogoeta-eremuen sustapena** ere barne hartzen du, hiru alderdiek koordinatutako sustapen-programen bidez eta gogoeta egiteko eta ezagutzak partekatzeko eremuak sortuz.

Hitzarmenaren bidez, egindako **ikerketari soziolinguistiko**en barruan lortutako eta bildutako datuak ere bateratuko dituzte elkarrekin. Bestalde, beste ikerketa-bide batzuk proposatuko dituzte euskararen egoera zein den jakiteko.

Azkenik, harreman estua ere aurreikusten du hitzarmenak, **Europako finantzazioek** eta POCTEFA programa berriek hizkuntza-politikaren erronkak kontuan har ditzaten.